



GAI ZERRENDA OROKORRA

1. GAIA.- KONSTITUZIOA

1. 1978ko Konstituzioa:

- a) Diputatuen Kongresuak eta Senatuak onartu zuten 1978ko abenduaren 6an eta 169 artikuluko ditu.
- b) Espainiar herriak berretsi zuen erreferendum bidez 1978ko abenduaren 6an eta 169 artikuluko ditu.
- c) Espainiar herriak berretsi zuen erreferendum bidez 1979ko abenduaren 6an eta 169 artikuluko ditu.
- d) Espainiar herriak berretsi zuen erreferendum bidez 1978ko abenduaren 6an eta 168 artikuluko ditu.

2. 1978ko Konstituzioak xedatzen duenaren arabera:

- a) Espainiako estatuaren eredu politikoa monarkia parlamentarioa da.
- b) Antolamendu juridikoaren balio nagusiak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa direla aldarrikatzen du Konstituzioak.
- c) Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

3. Adierazi zein den erantzun zuzena. 1978ko Konstituzioak:

- a) Dio Espainiako estatuaren eredu politikoa monarkia presidentzialista dela.
- b) Berdintasun benetakoa eta eragingarria aitortzen du 14. artikuluan.
- c) Duintasunaren oinarritzko eskubidea aitortzen du 10.2 artikuluan.
- d) Dio espainiarrak adin nagusiko direla hemezortzi urte betetzean.

4. 1978ko Konstituzioak ezartzen duenaren arabera:

- a) Oinarritzko eskubideak I. tituluan daude araututa.
- b) Espainiako hizkuntza guztiak izango dira, gaztelaniarekin batera, estatuaren hizkuntza ofizialak eta espainiar guztiak dute hizkuntza horiek jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
- c) Bizitzarako eskubidea auzitegi arruntetan zuzenean argudiatu daiteke, baina ez Konstituzio Auzitegian.
- d) Oinarritzko eskubideak pertsona fisikoek baino ezin dituzte aldarrikatu.

5. 1978ko Konstituzioak ezartzen du:



-
- a) Herri Defendatzailea jurisdikzio-organoa da eta oinarrizko eskubideak defendatzeaz arduratzen da.
 - b) Oinarrizko eskubideen erabilera Legez arautu behar da beti.
 - c) Konstituzioan jasotako eskubide guztiak lotesleak dira botere publiko guztientzat.
 - d) Alarma-egoeran oinarrizko eskubideak eten daitezke.

2. GAIA.- ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAMENDUA

6. Adierazi zein den erantzun zuzena. Konstituzioaren arabera:

- a) Lurraldeari dagokionez, estatua udalerrri, probintzia eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan antolatzen da.
- b) Udalerrien autonomia politikoa bermatzen da.
- c) Autonomia-erkidegoen autonomia baino ez da bermatzen.
- d) Autonomia-erkidegoen arteko federazioa onartzen da.

7. Adierazi zein EZ den erantzun zuzena.

- a) Konstituzioak nortasun juridiko osoa aitortzen die udalerriei.
- b) Konstituzioak identifikatzen ditu estatua osatzen duten autonomia-erkidegoak.
- c) Autonomia-estatutuak dira autonomia-erkidegoen oinarrizko erakunde-arauak.
- d) Botere publiko orok gai zehatz batean aritzeko duen gaitasuna da eskumena.

8. Autonomia-estatutuei dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Konstituzioak ez du haien gutxienerako edukia edo beharrezkoa esplizitu adierazten.
- b) Konstituzioak eskatzen duen bakarra da autonomia-estatutuek berezko erakunde autonomoen izena eta egoitza izatea.
- c) Konstituzioak haien gutxienerako edukia edo beharrezkoa esplizitu adierazten du 147.2 artikuluan.
- d) Zuzenak b) eta c) erantzunak dira.

9. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Konstituzioak zehazten du autonomia-estatutuak eraldatzeko bete beharreko prozedura zein den.
- b) Autonomia-estatutuak eraldatzeko, parlamentu autonomikoak lege organikoaren bidez onetsi behar du eraldaketa.



c) Autonomia-estatutuak eraldatzeko, zenbait kasutan Gorte Nagusiek lege arruntaren bidez onetsi beharko dute eraldaketa.

d) Autonomia-estatutuak eraldatzeko, edozein kasutan Gorte Nagusiek lege organikoaren bidez onetsi beharko dute eraldaketa.

10. Adierazi organo hauetako zein ez dauden Konstituzioaren 151. artikuluan aurreikusitako bidetik autonomia eskuratu zuten autonomia-erkidegoetako erakunde-antolaketan:

a) Biltzar legegilea.

b) Gobernu Kontseilua.

c) Auzitegi Gorena.

d) Lehendakaria.

3. GAIA.- EUROPAR BATASUNEN ZUZENBIDEA

11. Europako Kontseiluari dagokionez, adierazi zein EZ den erantzun zuzena:

a) Batasunean funtzio legegilea duen erakundea da.

b) Batasuneko orientazioa eta lehentasun politiko orokorrak definitzen ditu.

c) Estatu kideetako estatuburuek eta/edo gobernuburuek osatzen dute, presidentearekin eta Batzordeko presidentearekin batera.

d) Bi urte eta erdirako hautatzen da presidentea eta behin bakarrik berritu ahal izango du agintaldia.

12. Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentzia, Atzerri Arazoetarako Kontseilua izan ezik, estatu kideen artean txandakatzen da eta honako iraupen hau izaten du:

a) Hamabi hilabete.

b) Sei hilabete.

c) Hiru hilabete.

d) Bi urte.

13. Adierazi Europako Batzordeari buruzko erantzun zuzena:

a) Bost urteko agintaldia izaten da.

b) Europako Parlamentuak onartzen du presidentzia, kideen gehiengoaren bidez.

c) Europar Batasunaren interes orokorra adierazten duen instituzioa da.



d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

14. Adierazi Europako Parlamentuari buruzko esaldi hauetako zein den zuzena:

- a) Funtzio legegilea berak bakarrik betetzen du.
- b) Batasuneko herritarren ordezkariak osatzen dute.
- c) Estatu kide bakoitzeko gutxienez bost diputatu ditu.
- d) Presidentea bertako kideek aukeratzen dute gehiengo soilez.

15. Justizia Auzitegiko epaileak eta abokatu nagusiak aldi honetarako izendatzen dira:

- a) Bost urte.
- b) Lau urte.
- c) Sei urte.
- d) Hiru urte, eta behin bakarrik luzatu daiteke agintaldia.

4. GAIA.- EAEko ANTOLAKUNTZA POLITIKOA ETA ADMINISTRATIBOA

16. Adierazi zein EZ den erantzun zuzena Eusko Legebiltzarrari buruz:

- a) Lau urterako aukeratzen da.
- b) Kideen hautaketa Euskal Autonomia Estatutuan araututa dago.
- c) Kideak bortxaezinak dira.
- d) Bere aurrekontua onartzeko aurrekontu-autonomia du.

17. Eusko Legebiltzarreko legeen aldarrikapena honek egingo ditu:

- a) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, zeinak legeak onartzen direnetik hamar eguneko epean “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian” eta “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratzeko aginduko duen.
- b) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, zeinak legeak onartzen direnetik hamabost eguneko epean “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian” eta “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratzeko aginduko duen.
- c) Eusko Legebiltzarreko presidenteak, zeinak legeak onartzen direnetik hamabost eguneko epean “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian” eta “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratzeko aginduko duen.
- d) Eusko Legebiltzarreko presidenteak, zeinak legeak onartzen diren hurrengo egunean “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian” eta “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratzeko aginduko duen.



18. Adierazi zein den erantzun zuzena. Eusko Legebiltzarrak ezarriko du bere barne-erregelamendua eta honakoak onartu beharko du:

- a) Kideen gehiengo soilak.
- b) Kideen hiru bostenen gehiengoak.
- c) Kideen gehiengo osoak.
- d) Kideen bi herenen gehiengoak.

19. Eusko Jaurlaritzako lehendakartzan bitarteko izaera honakoa izango da gehienez:

- a) Lau hilabete.
- b) Bi hilabete.
- c) Hiru hilabete.
- d) Hilabete.

20. Eusko Legebiltzarrak hautatuko du lehendakaria:

- a) Legebiltzarkideetako bat izango da eta gobernu zentralerako presidenteari izendatuko du.
- b) Legebiltzarkideetako bat hautatuko da Lege bidez.
- c) Legebiltzarkideetako bat izango da eta erregeari izendatuko du Lege bidez.
- d) Legebiltzarkideetako bat izango da eta erregeari izendatuko du Errege Dekretu bidez.

5. GAIA.- ALDERDI OROKORRAK BATERAKO ERAKUNDEAK ETA LURRALDE HISTORIKOAK

21. Adierazi gai hauetako zeinetan ez dute eskumen eskusiborik lurralde historikoetako foru-aginduek:

- a) Animalien ekoizpena eta osasuna.
- b) Obren eta Zerbitzuen Foru Plana idatzi eta onartzea, tokiko erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
- c) Probintziaren eta udalaren ondasunen araubidea, bai jabetza publikokoak zein ondarekoak eta herrilurrak.
- d) Artxiboak, liburutegiak, museoak eta arte ederrekin eta eskulangintzarekin zerikusia duten erakundeak, lurralde historikoaren titulartasunekoak badira.

22. Adierazi zein den erantzun zuzena. Arbitraje-batzordeak:



- a) Eskumen-gatazkak baino ez ditu ebazten.
- b) Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak askatasunez izendatutako kide-kopuru beraz osatuta dago.
- c) Euskadiko Auzitegi Nagusiko lehendakaria izango du buru eta hiru kide.
- d) Euskadiko Auzitegi Nagusiko lehendakaria izango du buru eta sei kide.

23. Adierazi zein den erantzun zuzena. Lurralde historikoek ezarriko duten zerga-sistemak honako printzipio hau jarraituko du:

- a) Solidaritateari errespetua Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan aurreikusitako terminoetan.
- b) Estatuaren zerga-sistema orokorraren arreta.
- c) Estatuarekin koordinazioa, zerga-harmonizazioa eta lankidetzeta, Kontzertu Ekonomikoko arauekin bat.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

24. Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko Ogasun Publikoari ordaindu beharreko kupoa:

- a) Bi zati berdinetan ordainduko du, urte bakoitzeko ekainean eta abenduan.
- b) Hiru zati berdinetan ordainduko du urtero maiatzean, irailean eta abenduan.
- c) Bi zatitan ordainduko du, urte bakoitzeko ekainean eta abenduan.
- d) Zati bakarrean ordainduko du, urte bakoitzeko abenduan.

25. Itun Ekonomikoaren Batzorde Mistoko akordioak honela hartzen dira:

- a) Kide guztien aho batez.
- b) Kide guztien gehiengo osoz.
- c) Kide guztien gehiengo soilez.
- b) Kide guztien hiru bostenen gehiengoz.

6. GAIA.- BERDINTASUNA

26. Adierazi zein den erantzun zuzena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenaren arabera:

- a) Ekintza positiboa da bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko behin betiko neurriak.



b) Ekintza positiboa da bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko denboran ondo mugatutako berariazko neurriak.

c) Ekintza positiborik ez da 4/2005 Legean.

d) Ekintza positiboa baden arren, 4/2005 Legeak ez du definitzen.

27. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenaren arabera, ondokoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduera gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak:

a) Aukera-berdintasuna.

b) Tratu berdina eta ikuspegi intersektionalaren integrazioa.

c) Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.

d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

28. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioetarako, pertsona anitzeko organoetan ordezkariak orekatua dela esango da:

a) Lau kide baino gehiagoko organoetan ordezkariak orekatutzat joko da sexu bakoitzak gutxienez %30eko ordezkariak badu eta gainerakoetan bi sexuak baldin badaude.

b) Lau kide baino gehiagoko organoetan ordezkariak orekatutzat joko da sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkariak badu eta gainerakoetan bi sexuak baldin badaude.

c) Bi sexuetako pertsonak baldin badaude.

d) Sexu bakoitzak gutxienez %30eko ordezkariak badu.

29. Adierazi zein EZ den erantzun zuzena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenaren arabera Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago.

b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria du buru.

c) Eusko Jaurlaritzako Berdintasun sailburua du buru.

d) Zuzenak a) eta b) erantzunak dira.

30. Adierazi zein den erantzun zuzena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak:



- a) Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria galarazten du, baina zuzeneko bakarrik definitzen du.
- b) Zuzeneko bereizkeria bakarrik galarazten eta definitzen du.
- c) Bereizkeria anizkoitza galarazten eta definitzen du.
- d) Zuzeneko nahiz zeharkako bereizkeria galarazten du eta bi kontzeptuak definitzen ditu.

7. GAIA.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

31.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, Interneteko ataria honela definitzen da:

- a) Telekomunikazio-sareen bidez herritarren esku dago helbide elektronikoa, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten edo gehiagoren edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasuneko, bere eskumenen egikaritzan.
- b) Informazio-sistema independenteetatik datozen agirien ziurtagiri elektronikoan oinarritutako sinadura elektronikoa jendeari errazteko tresna informatikoa, administrazioaren jarduera bizkortu dadin.
- c) Irispide-puntu elektronikoa bat, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasuneko, interneten bidez irispidea ematen duena argitaratutako informaziora eta, hala denean, dagokion egoitza elektronikora.
- d) Administrazio publikoak garatutako plataforma teknologikoa herritarren informazio partikularra kontsultatu eta kudeatzeko, administrazio publiko horren zerbitzuei eta prozedurei buruz.

32.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, administrazio-jarduketetan erabilitako dokumentu guztiak:

- a) Bitarteko elektronikoz biltegitratuko dira, ezinezkoa denean salbu.
- b) Bitarteko elektronikoz biltegitratuko dira, hirugarrenen eskubideei erasaten dietenean salbu.
- c) Ezingo dira bitarteko elektronikoz biltegitratu.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

33.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, interesdunek erabakitzen badute bitarteko elektronikoen bidez izatea harremana administrazio publikoekin, sinadurarako baliozkotzat joko dira:



-
- a) Sinadura elektronikoko kualifikatuko ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako sinadura elektronikoko kualifikatu eta aurreratuen sistemak, ziurtapen zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendetan dauden emaileek egindakoak.
 - b) Zigilu elektronikoko kualifikatuko eta zigilu elektronikoko aurreratutako sistemak, ziurtapen zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendetan dauden emaileek egindakoak.
 - c) Administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta baldintzetan. Aurrez erabiltzaileen erregistroa badute nortasuna bermatze aldera, Lurralde Politika eta Funtzio Publikoaren Ministerioko Administrazio Digitalaren Idazkaritza Orokorraren baimena lortu ondoren.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

34.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio publiko orok:

- a) Artxibo elektronikoko bakar bat izan beharko du, hasitako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoena.
- b) Artxibo elektronikoko bat baino gehiago izan beharko ditu, hasitako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoena.
- c) Artxibo elektronikoko bat baino gehiago izan beharko ditu, amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoena.
- d) Artxibo elektronikoko bakar bat izan beharko du, amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoena.

35.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedurako interesdunen batek ez badauzka behar diren bitarteko elektronikoak, administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko:

- a) Edozein langile publikok egin dezake, balio osoz, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.
- b) Funtzionario publiko batek egin dezake, balio osoz, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.
- c) Interesdunak baimendutako edozein pertsonak egin dezake, balio osoz, sinadura elektronikoa badu.
- b) Edozein funtzionariok egin dezake, balio osoz, agintari-kondizioa aitortuta badu, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.

8. GAIA.- EUSKARA ERABILTZEKO HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA



36. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen arabera, adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Euskara eta gaztelaniaren ofizialtasuna adierazten da.
- b) Euskal Herriko hizkuntza propioa euskara dela adierazten da.
- c) Euskal Herriko hizkuntza propioa euskara dela eta gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala dela adierazten da.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

37. Adierazi zein EZ den erantzun zuzena. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera:

- a) Aldizkariak euskaraz jasotzeko eskubidea ez da oinarrizko hizkuntza-eskubidetzat hartzen.
- b) Herritar guztiak Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan aukeratzen duten hizkuntza ofizialean hartuak izateko eskubidea dute.
- c) Ziurtagiriak luzatzeko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinerako itzulpena ziurtatuko da.
- d) Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

38.- Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera, Euskal Herriko plangintza soziolinguistikorako karta:

- a) Eusko Legebiltzarrak egingo du eta bi urtean behin berrikusiko da.
- b) Eusko Legebiltzarrak egingo du eta aldizka berrikusiko da.
- c) Gobernuak egingo du eta aldizka berrikusiko da.
- d) Eusko Legebiltzarrak egingo du Gobernuari jakinarazi ondoren.

39. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera, euskararen erabilerari dagokionez herri-administrazioan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lur-eremuan, herritar guzteei aitortzen zaie:

- a) Euskara zein gaztelania erabiltzeko eta euskaraz hartuak izateko eskubidea.
- b) Euskara zein gaztelania erabiltzeko eta aukeratzen duten hizkuntza ofizialean hartuak izateko eskubidea.
- c) Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa bakarrik erabiltzeko eta aukeratzen duten hizkuntza ofizialean hartuak izateko eskubidea.
- d) Erantzun bakar bat ere ez da zuzena.



40. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera:

- a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteeek erabili beharreko inprimakiak bi hizkuntzetan egon beharko dute zabalkunde ofiziala egiteko.
- b) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteeek erabili beharreko idazki-eredu ofizialak bi hizkuntzetan egon beharko dute zabalkunde ofiziala egiteko.
- c) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteeek erabili beharreko inprimakiak edo eredu ofizialak hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita egongo dira.
- d) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteeek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

9. GAIA- EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURAKO LANGILEAK

41.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zerbitzua telelanaren bidez ematea:

- a) Administrazio-unitateko enplegatu publikoen kopuruaren araberrako ehuneko jakin bati erantzungo dio.
- b) Berariaz baimendu beharko da eta aurrez aurreko modalitatearekin bateragarria izango da.
- c) Nahitaezkoa izango da, hura garatzeko ezartzen diren irizpideen arabera.
- d) Oro har, gehienez ere lanaldiaren ehuneko berrogeita hamar hartu ahal izango du astero.

42.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, derrigorrez negoziatu beharko dira honako gai hauek:

- a) Zerbitzu publikoen erabiltzaileek eta herritarrek dituzten eskubideen erregulazioa.
- b) Zuzendaritza organoen izendapenak.
- c) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.
- d) Enplegu publikora iristeko eta lanbide-sustapena egiteko sistemak, irizpideak, organoak eta prozedurak finkatzeko erregulazioa eta mugapen zehatza, kasuan-kasuan.

43.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aurreikusitako barne-sustapen bertikala honetan datza:

- a) Gradua, kategoria, eskaloi edo antzeko kontzeptuak oinarri hartuta, aurrera joan daiteke, lanpostuz zertan aldatu izan gabe.



- b) Lanpostuen egituran igo egin daiteke, lanpostuak betetzeko ezarritako prozedurak erabilia.
- c) Azpitalde profesional bereko kidegoetara edo eskaletara iristea.
- d) Azpitaldeko eskala batetik (edo Talde batekotik, baldin eta Azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea.

44.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zerbitzu harremana funtzionarioak nazionalitatea galdu duelako edo, zerbitzurako ezgaitasun iraunkorra dela-eta, erretiroa hartu duelako amaitzen denean, interesdunak, amaiera ekarri zuen arrazoi objektiboa desagertutakoan, funtzionario-izaera birgaitzeko eskaera egiten badu:

- a) Dagokion organoak emandako birgaitzea diskrezionala izango da, zerbitzuaren beharren arabera.
- b) Dagokion organoak emandako birgaitzea diskrezionala izango da, nazionalitatea galdu edo zerbitzurako ezgaitasun iraunkorra dela-eta, erretiroa hartu zenetik igarotako urteen arabera.
- c) Eskatzen den birgaitzea beti emango da.
- d) Eskatzen den birgaitzea ez da emango.

45.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zuzendaritzako langile profesionalek:

- a) Gutxienez hamar urteko esperientzia egiaztatu beharko du karrerako funtzionario gisa, eta dagokion oposizioaren ondoren izendatuko da.
- b) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezizat berariaz kalifikatutako eginkizunak bakarrik egiten dituela kontuan hartuta, libreki izendatu eta kargugabetuko da.
- c) Gutxienez bost urteko esperientzia egiaztatu beharko du karrerako funtzionario gisa, eta dagokion oposizioaren ondoren izendatuko da.
- d) Aintzat hartuko dira merezimendu- eta gaitasun-printzipioak baita egokitasun-irizpideak ere; eta publikitatea eta lehia bermatzeko prozedurak erabiliko dira.

10. GAIA- DATU PERTSONALEN BABESA

46. Datuak zehatzak ez badira xedatutakoaren ondoreetarako, ez zaio tratamenduaren arduradunari egotziko datuen zehaztasun falta egoera honen ondorioz gertatu bada:

- a) Arduradunak datuak erregistro publiko batetik lortu baditu.



- b) Arduradunak ukituarengandik zuzenean lortu baditu datuak.
- c) Arduradunak tratatzen baditu, beste arduradun batengandik jasoak, ukituak eramangarritasun-eskubidea egikaritu duelako.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

47. Datu pertsonalak tratatzean, ukituak emandako adostasuna:

- a) Borondate-adierazpen aske, espezifikoa, arrazoitu eta zalantzarik gabekoa oinarri izan beharko du.
- b) Borondate-adierazpen askea oinarri izatearekin nahikoa da.
- c) Borondate-adierazpen aske eta espezifikoa oinarri izatearekin nahikoa da.
- d) Adingabekoen kasuan hamabi urte baino gehiago dituztenean soilik hartuko dira kontuan.

48. Adierazi zein den erantzun zuzena. Eskubidea egikaritzea errepikakorra dela ulertuko da behin baino gehiagotan baliatu bada:

- a) Hiru hilabeteko tartean.
- b) Sei hilabeteko tartean.
- c) Sei hilabeteko tartean, horretarako arrazoi legitimorik egon gabe.
- d) Bederatzi hilabeteko tartean.

49. Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 9. artikuluan datu-kategoria berezitzat hartzen ditu ukituaren alderdi hau edo hauek identifikatzea ahalbidetzen duten datuak:

- a) Ideologia.
- b) Erlijioa.
- c) Afiliazio sindikala.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

50. Interesdunak eskubidea du tratamenduaren arduradunak berari buruzko datu pertsonalak ezereztu ditzan. Nola deitzen zaio eskubide horri?

- a) Datuak ezerezteko eskubidea.
- b) Datuak zuzentzeko eskubidea.
- c) Tratamendua mugatzeko eskubidea.
- d) Tratamenduari aurka egiteko eskubidea.



11. GAIA- GOBERNU IREKIA

51.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat, arau-hauste oso larriak izango dira jokabide hauek, errua denean tartean:

- a) Agintekeria kargua betetzean.
- b) Administrazio-prozedura batean esku-hartzea, esku ez hartzeko kausetariko bat egonik tartean.
- c) Bateriaezintasunen arloan, epeak edo prozedura arloko beste xedapen batzuk ez betetzea, horrek bateraezintasun-egoerari eustea ez dakarrenean.
- d) Gastuen, obligazioen edo ordainketen alde aurreko kontu-hartze izapidea ez egitea, baldin eta hori aginduzkoa bada.

52.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat, informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzeko honako hauei kalteren bat eragiten badie:

- a) Antolaketa administratiboa.
- b) Zigor-, administrazio- edo diziplina-arloko egintza ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zigorra.
- c) Hirigintza-plangintza.
- d) Enpresa-interesak.

53.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat, informazio publikoa eskuratzeko eskatzaileak:

- a) Arrazoitu egin beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa.
- b) Ez du arrazoitu beharko zergatik eskuratu nahi duen informazioa.
- c) Eskaera arrazoitu beharko du, baldin eta eskatzen duen informazioa administrazio-antolamenduari buruzkoa bada.
- d) Eskaera arrazoitu beharko du, baldin eta eskatzen duen informazioa zuzendu zaion administrazioak esleitutako kontratuei buruzkoa bada.

54.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 19/2013 Legearekin bat, ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako informazio publiko eskabide hauek:

- a) Hedatzeko, alde aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.



- b) Egiteko bidean den informazioari buruzkoak.
- c) Argitalpen orokorrerako bidean den informazioari buruzkoak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

55.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat, xedapenak honako hauei aplikatuko zaizkie:

- a) Merkataritza-sozietateei, artikuluko honetako erakundeek 100eko 40ko baino gehiagoko zuzeneko nahiz zeharkako partizipazioa badute haien kapital sozialean.
- b) Merkataritza-sozietateei, artikuluko honetako erakundeek 100eko 50eko baino gehiagoko zuzeneko nahiz zeharkako partizipazioa badute haien kapital sozialean.
- c) Sektore pribatuko fundazioei.
- d) Zuzenbide Publikoko korporazioei, beren jarduera osoan.

12. GAIA- ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEA

56.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, honako hauek EZ dira izango administrazio-espeditentearen parte:

- a) Administrazio publikoek emandako balio-judizioak.
- b) Prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak.
- c) Administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri diren dokumentu eta jarduketak.
- d) Administrazio-ebazpena betearazteko eginbideak.

57.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera:

- a) Administrazio publiko bakoitzak erabakiko du zer organok dituzten eskumenak administrazio-dokumentu publiko zein pribatuen kopia autentikoak egiteko.
- b) Estatuko Administrazioak erabakiko du, administrazio guztientzat (autonomia-erkidegokoak eta tokikoak barne), zein langilek egin ahal izango dituzten administrazio-dokumentu publiko zein pribatuen kopia autentikoak.
- c) Estaturako gaikuntza duten funtzionarioek baino ezingo dituzte egin administrazio-dokumentu publiko zein pribatuen kopia autentikoak.
- d) Karrerako funtzionarioa den edozein enplegatu publikok egin ahalko ditu administrazio-dokumentu publiko zein pribatuen kopia autentikoak.



58.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, honako hauek joko dira administrazio-dokumentu publiko edo pribatu baten kopia autentikotzat:

- a) Administrazio publikoetako organo eskudunek euskarri fisikoetan egindakoak baino ez, bermaturik geratzen bada kopia egin duen organoaren identitatea.
- b) Administrazio publikoetako organo gorenek euskarri elektronikoetan egindakoak baino ez, bermaturik geratzen bada edukiaren identitatea; kasu batzuetan, kopia egin duen organoaren identitatea aipatu ahalko da.
- c) Edozein euskarritan eginda daudela ere, administrazio publikoetako organo eskudunek egindakoak, bermaturik geratzen bada kopia egin duen organoaren identitatea eta dokumentuaren edukia.
- d) edozein euskarritan eginda daudela ere, administrazio publikoetako organoek egindakoak, bermaturik geratzen bada edukiaren identitatea; kasu batzuetan, kopia egin duen organoaren identitatea aipatu ahalko da.

59.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, zer da administrazio-espeditente bat?

- a) Administrazio-egintzen multzo ordenatu bat, jarraitutako prozedura jasotzen duena eta administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena; espeditentean ez da jaso behar hartutako ebazpenaren kopia elektronikoa egiaztatua.
- b) Dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat, jarraitutako prozedura jasotzen duena, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.
- c) Administrazio-prozeduraren euskarria, fisikoa edo elektronikoa.
- d) Administrazio-prozedura batekin lotutako edozein dokumentu edo jarduketa.

60. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, kopia autentikoen:

- a) Ez dute izango jatorrizko dokumentuen efikazia bera; bai, ordea, baliozkotasun bera.
- b) Ez dute izango jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera; bai, ordea, efikazia bera.
- c) Ez dute izango jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera.
- d) Jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.

13. GAIA.- SINADURAK LEGEZTATZEA

61.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, dokumentu elektronikoak administrazio desberdinen arteko



komunikazio-ingurune itxietan transmititzen direnean, igorleak eta jasotzaileak autentifikatu eta identifikatzeko baldintzak eta bermeak:

- a) Edozein igorlek edo hartzailek zehaztuko ditu.
- b) Legez zehaztuko dira.
- c) Estatuko Administrazioaren dekretu bidez zehaztuko dira.
- d) Haien artean sinatutako hitzarmen bidez zehaztuko dira.

62.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, administrazio publiko, organo, erakunde publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten jarduketa, bitarteko elektronikoak erabiltzen dituenen:

- a) Organoaren nortasuna egiaztatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da.
- b) Edozein bitartekoren bidez egin ahalko da.
- c) Ez da sinadura elektronikoren bidez egingo, ez organoko titularrena, ez enplegatu publikoarena.
- d) Sinadura elektronikoren bidez egingo da, organoko titularrena edo enplegatu publikoarena.

63.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, nori dagokio administrazio publikoan langileek erabili behar dituzten sinadura elektronikoko sistemak zehaztea?

- a) Administrazio publiko bakoitzari.
- b) Estatuko Administrazioari.
- c) Estatu-legegileari.
- d) Estatu Kontseiluari.

64.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, sinadura elektronikoa buruzko legeriak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituen ziurtagiri elektroniko onartu edo kualifikatuak honako hauek jasoko ditu:

- a) Dagokion izendapena, egoitza, eta kualifikazio-maila edo ziurtagiri horren onarpena.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia eta dagokien izendapena, bai eta, hala badagokio, titularren nortasuna ere, administrazio-organoen zigilu elektronikoen kasuan.
- c) Dagokion izendapena, egoitza eta enplegatu publikoaren identifikazio-zenbakia.
- d) Identifikazio fiskaleko zenbakia, kualifikazio-maila edo ziurtagiri horren onarpena, bai eta, hala badagokio, titularren nortasuna ere, administrazio-organoen zigilu elektronikoen kasuan.



65.- **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, administrazio publiko bakoitzak erabiltzen dituen zigilu elektronikoen zerrenda, ziurtagiri elektronikoen ezaugarriak eta ziurtagiri horiek ematen dituztenak barne hartuta:**

- a) Ezin izango da argitaratu.
- b) Publikoa izango da, eta edozein bitartekoren bidez iristeko modukoa.
- c) Publikoa izango da, baina ez iristeko modukoa.
- d) Publikoa izango da, eta bitarteko elektronikoen bitartez iristeko modukoa.

Erantzun zuzena d) da. Justifikazioa: 40/2015 Legearen 40. art.

14. GAIA.- KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUKO EREDUA

66.- AURRERABIDE Kudeaketa Publiko Aurreratuko Ereduaren arabera, honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta erakunde-administrazioko kargudunen eta behin-behineko langileen jokabide-kode etikoan jasotzen diren baloreak:

- a) Zuzentasuna, bikaintasuna, politika eta kudeaketa lerrokatzea, lidergoa eta berrikuntza.
- b) Ekonomia, nahikotasuna eta bitartekoak erakundearen helburuetara zorrozki egokitzea.
- c) Zuzentasuna eta jasangarritasuna.
- d) Efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean.

67.- AURRERABIDE Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua:

- a) Eredu estatiko bat du euskarri, eta administrazio-antolaketa erdian jartzen du.
- b) Eredu estatiko bat du euskarri, eta administrazioen arteko harremanak erdian jartzen ditu.
- c) Eredu misto bat du euskarri, eta gure administrazioaren ezaugarri nagusia nabarmentzen du: proportzionaltasunaren printzipioa eta gutxien mugatzen duen neurria hautatzea.
- d) Eredu dinamiko bat du euskarri, eta gure administrazioaren ezaugarri nagusia nabarmentzen du: balio publikoa eranstea, beharrei bidezko moduan erantzunda.

68.- AURRERABIDE Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua:

- a) 5 ardatz, 25 jardun-lerro eta 155 ekintza nagusiren inguruan egituratzen da.
- b) 5 ardatz, 20 jardun-lerro eta 150 ekintza nagusiren inguruan egituratzen da.



- c) 6 ardatz, 24 jardun-ildo eta 153 ekintza nagusiren inguruan egituratzen da.
- d) 6 ardatz, 20 jarduera-ildo eta 150 ekintza nagusiren inguruan egituratzen da.

69.- AURRERABIDE Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren arabera, misioa (administrazio-unitatearen izateko arrazoia) eta ikuskera (etorkizunean nolakoa izan nahi duenaren deskribapena) honako ardatz honen funtsak dira:

- a) Zerbitzuak.
- b) Pertsonak.
- c) Berrikuntza.
- d) Estrategia.

70.- AURRERABIDE Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren arabera, jokabide-kode etikoa hedatzean proaktiboa izatea eta antolaketa-atalak hobeto kontu ematea edo gardenagoa izatea honako ardatz honetan sartzen da:

- a) Gizartea.
- b) Zerbitzuak.
- c) Berrikuntza.
- d) Langileak.

15. GAIA.- HERRITARREN ESKUBIDEAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIKO HARREMANETAN

71.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat, administrazioarekin harreman bitarte elektronikoz izateko betebeharra soilik honako hauei EZ zaie ezartzen:

- a) Pertsona fisikoei.
- b) Pertsona juridikoei.
- c) Nortasun juridikorik gabeko entitateei.
- d) Administrazio publikoetako enplegatuei, enplegatu publiko izateagatik

administraziookin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.

72.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat, pertsonak administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea:



- a) Behin baino ezingo du aldatu norberak.
- b) Ezingo du noiznahi aldatu norberak.
- c) Noiznahi aldatu ahal izango du norberak..
- d) Norberak aldatu ahal izango du, baldin eta lehenengoz hautatu duenetik bi hilabete igaro badira.

73.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat, interesdunek administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak EZINGO dira aurkeztu:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
- b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- d) Edozein entitaterean bulegoetan, bai zuzenbide publikokoetan, bai pribatukoetan, baldin eta finantzaketa publikoa jasotzen badute.

74.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat, pertsonak bulego publikoetan agertzea, bertara joanez edo bitarteko elektronikoz, honako kasu honetan bakarrik izango da nahitaezkoa:

- a) Lege organikoaren mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean.
- b) Administrazioak administrazio-agindu baten bidez hala erabakitzen duenean.
- c) Erregelamendu-xedapen batean hala ezarrita dagoenean.
- d) Lege-mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean.

75.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin bat, administrazio-prozeduretan administrazioak interesdunari ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea:

- a) Ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta erregelamendu-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
- b) Ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
- c) Ezin da hiru hilabete baino gehiago izan, non eta erregelamendu-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
- d) Ezin da hiru hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.



16. GAIA.- KOMUNIKAZIOA ADMINISTRAZIOAN

76.- Administrazioaren hizkuntzari dagokionez, nominalizazio-estiloa erabiltzeko joera dago, beraz:

- a) Aditza adjektibo bihurtzen dugu, eta beste aditz bat idatzi behar da esaldia osatzeko.
- b) Aditza izen bihurtzen dugu, eta beste aditz bat idatzi behar da esaldia osatzeko.
- c) Aditza adjektibo bihurtzen dugu, eta esaldia laburtzen da.
- d) Aditza izen bihurtzen dugu, eta esaldia laburtzen da.

77. - Komunikazioarekiko eragozpen pertsonala da:

- a) Gogo-aldartea.
- b) Entzumen sinpatikoa.
- c) Nortasunik eza.
- d) Jarrera lizuna.

78.- Komunikazioaren oztopo semantikoak:

- a) Igorlearen eta hartzailearen artean ezagutza-aldea dagoenean azaltzen dira.
- b) Igorleak eta hartzaileak jartzen dituzten oztopoak dira, eta indibiduoaren ezaugarriekin lotuta daude.
- c) Inguruneko interferentziak dira, eta komunikazioa blokeatzen dute.
- d) Komunikazioaren beraren kodearekin daude lotuta, igorleen eta hartzaileen artean aldakorak izan daitezke, eta zaila edo ezinezkoa da elkar ulertzea.

79.- Administrazioaren hizkuntzak honako ezaugarri hauek bete beharko lituzke:

- a) Subjuntiboaren geroaldia erabiltzea.
- b) Argitasuna, zehaztasuna eta hizkuntza-zuzentasuna.
- c) Argitasuna, zehaztasuna eta inpertsonaltasuna.
- d) Esaldi pasiboetara, pasibo erreflexuetara eta beste egitura inpertsonal batzuetara jotzea.

80.- Administrazioaren hizkuntza hobetzeko proposamenen barruan, hona hemen aholku bat:

- a) Gutxienez 3-5 lerroko paragrafoak (40-70 hitz) idaztea.
- b) Paragrafoaren egitura gutxienez 5 esaldikoa izatea.
- c) Paragrafoak esaldi bakarrean egituratzea.



d) Gehienez 3-5 lerroko paragrafoak (40-70 hitz) idaztea.

17. GAIA.- AHOZKO KOMUNIKAZIOA

81.- Administrazioaren dokumentuen barruan, ofizioa:

- a) Komunikazio pertsonaletarako, protokolo-komunikazioetarako edo eduki orokorreko dokumentu mota bat da, ohiko kudeaketarekin edo prozeduraren izapideekin zuzeneko harremanik gabekoa.
- b) Interesdunari ebazpen edo erabaki bat jakinarazten dion dokumentua da, baldin eta bere interesetan edo eskubideetan eragiten badu.
- c) Dokumentu bat da herritarrak edo erakunde juridikoak administrazioari indarreko araudiak, oro har, aurrez ikusten duen zerbait eskatzeko.
- d) Administrazioaren dokumentu bat da, eta administrazioaren unitateen eta organoen artean komunikatzeko erabili ohi da.

82.- Hitzik gabeko komunikazio kinesikoa:

- a) Ahoz komunikatzean pertsonen espazioa eta distantzia hartzen du.
- b) Hizkuntzaren alderdi ez-semantikoak hartzen ditu, adibidez erabilitako tonua, hitz egiteko erritmoa, ahots-bolumena, isiluneak eta tinbreak (goikoa, behekoa...).
- c) Gorputzaren keinuak eta begiradak hartzen ditu.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

83.- Ahozko komunikazioaren ezaugarriak dira honako hauek:

- a) Norabide bakarrekoa da.
- b) Ez da iragankorra.
- c) Inprobisatzeko joera du.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

84.- Ahozko adierazpena hobetzeko aholku praktikoa da:

- a) Informazioa nabarmendu eta azpimarratzeko estrategiak izatea.
- b) Aditzaren modu pertsonalak ez erabiltzea: *zuk, zuek/zeuek, guk*.
- c) Galdera erretorikoak ez erabiltzea.
- d) Lehenengoz informazio gehigarria eta azkenekoz garrantzitsuena ematea.

85.- Paralinguistikak:



- a) Hizkuntzaren alderdi semantikoak aztertzen ditu.
- b) Hizkuntzaren alderdi ez-semantikoak aztertzen ditu, adibidez erabilitako tonuak, hitz egiteko erritmoa edo ahots-bolumena.
- c) Gorputzaren keinuak eta begiradak aztertzen ditu.
- d) Pertsona-talde bati zuzentzeko distantzia ezin hobea aztertzen du.

18. GAIA.- ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

86.- Ildo formalari eutsiz, legearen erreserbak honako hau esan nahi du:

- a) Bakarrik legez arau daitezke arlo jakin batzuk.
- b) Bakarrik lege organikoaz arau daitezke arlo jakin batzuk.
- c) Arlo jakin bat legez arautzen denean, aurrerantzean lege bat beharko da arlo hori arautu ahal izateko.
- d) Arlo jakin bat legez arautzen denean, aurrerantzean lege organiko bat beharko da arlo hori arautu ahal izateko.

87. - Estatuko edo erkidegoko legeak:

- a) Ez ditu Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen.
- b) Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu konstituzio-kontrakotasuneko gaiaren edo babes-errekurtsoaren bidez.
- c) Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren edo babes-errekurtsoaren bidez.
- d) Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren edo gaiaren bidez.

88.- Lege organikoen bidez arautu beharreko gaiak dira:

- a) Hauteskunde-araubide orokorra onesten dutenak.
- b) Lurzoruaren jabetza-araubidea onesten dutenak.
- c) Errepideen araubidea onesten dutenak.
- d) Tokiko erakundeen araubidea onesten dutenak.

89.- Espainiako Konstituzioari jarraikiz, lege organikoak onetsi, aldatu edo indargabetzeko:

- a) Nahitaezkoa izango da Kongresuko eta Senatuko erabateko gehiengoa, proiektu osoari buruzko azken botazio bakoitzean.
- b) Nahitaezkoa izango da Kongresuko bi herenen gehiengoa, proiektu osoari buruzko azken botazioan.



c) Nahitaezkoa izango da Kongresuko eta Senatuko bi herenen gehiengoa, proiektu osoari buruzko azken botazio bakoitzean.

d) Nahitaezkoa izango da Kongresuko erabateko gehiengoa, proiektu osoari buruzko azken botazioan.

90.- Espainiako Konstituzioaren arabera, adierazi erantzun okerra:

a) EBk debekatu egiten du legegintzarako eskuordetza lege organikoari gordetako gaien ingurukoa izatea.

b) Legegintzarako eskuordetza esanbidezkoa izango da, eta isilbidezko eskuordetzaren aukera baztertuko da.

c) Legegintzarako eskuordetza epe mugagaberako eta isilbidezkoa izan daiteke.

d) Legegintzarako eskuordetza zein epetan erabiliko den finkatuko da, eta epe hori igarotakoan, eskuordetzan dagoen dekretua egiteko baimena indargabetuko da.

19. GAIA.- ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA

91.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zehazten duenaren arabera, xedapen baten bitartez eskumen bat administrazio bati esleitzen bazaio zein organok gauzatu behar duen zehaztu gabe, ulertuko da espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena:

a) Lurraldearen arabera goragoko organo eskudunarena dela.

b) Gaiaren arabera beheragoko organo eskudunarena dela.

c) Gaiaren eta lurraldearen arabera goragoko organo eskudunarena dela.

d) Gaiaren eta lurraldearen arabera beheragoko organo eskudunarena dela.

92.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, administrazio-organismoak izango dira:

a) Hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten eginkizunik esleituta ez duten administrazio-unitateak edo nahitaezko jarduketak egiten ez dituztenak.

b) Hirugarrenen aurrean ondorio juridikorik ez duten eginkizunak esleituta dituzten administrazio-unitateak, edo nahitaezko jarduketak egiten dituztenak.

c) Hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten eginkizunak esleituta dituzten administrazio-unitateak, edo nahitaezko jarduketak egiten ez dituztenak.

d) Hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak dituzten eginkizunak esleituta dituzten administrazio-unitateak, edo nahitaezko jarduketak egiten dituztenak.



93.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, ezin dira inolaz ere delegatu:

- a) Zehapen-prozedurak.
- b) Egintza errekurritua ematen duen administrazio-organoan errekurtsua ebazteko eskumena.
- c) Xedapen bereziak emateko eskumena.
- d) Zuzendaritza-organoekin lotutako gaien eskumena.

94.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, kide anitzeko organoak modu baliodunean era daitezke bilkurak eta deliberazioak egiteko eta erabakiak hartzeko aurrez deialdirik egin gabe:

- a) Kide anitzeko organoko idazkaria eta kide guztiak edo horiek ordeztzen dituzten pertsonak bildurik daudenean, aurrez aurre edo urrutitik, eta kide guztiak hori erabakitzen dutenean.
- b) Kide anitzeko organoko idazkaria eta kideen heren bat edo horiek ordeztzen dituzten pertsonak bildurik daudenean, aurrez aurre, eta bildutako guztiak hori erabakitzen dutenean.
- c) Kide anitzeko organoko idazkaria eta kideen laurdena edo horiek ordeztzen dituzten pertsonak bildurik daudenean, urrutitik, eta bildutako guztiak hori erabakitzen dutenean.
- d) Kide anitzeko organoko idazkaria eta kideen erdia edo horiek ordeztzen dituzten pertsonak bildurik daudenean, aurrez aurre edo urrutitik, eta bildutako guztiak hori erabakitzen dutenean.

95.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, kide anitzeko organoetan ezin da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik:

- a) Eztabaidatu eta erabakitzeko kide gehienak ez badaude bilduta, eta gehiengoak erabakitzen ez badu aztergaia presakoa dela.
- b) Kide guztiak ez badaude bilduta, eta gehiengoak erabakitzen ez badu aztergaia presakoa dela.
- c) Eztabaidatu eta erabakitzeko kideen erdiak ez badaude bilduta eta gehiengoak erabakitzen ez badu aztergaia presakoa dela.
- d) Eztabaidatu eta erabakitzeko kide guztiak ez badaude bilduta, eta bertaratutako herenak erabakitzen ez badu aztergaia presakoa dela.

20. GAIA.- ADMINISTRAZIO-EGINTZA



96.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, ofizioz hasitako prozeduretan eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator badaitezke:

- a) Epea ebazpen espresurik gabe igaroz gero, prozedura iraungiko da.
- b) Epea ebazpen espresurik gabe igaroz gero, preskribatuko da.
- c) Agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez baietsizat jo ditzakete beren uziak.
- d) Agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ditzakete beren uziak.

97.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan:

- a) Epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri.
- b) Kasu guztietan izango da egintza deuseztagarri.
- c) Kasu guztietan izango da egintza deusez.
- d) Epearen izaerak hala eskatzen duenean izango da egintza deusez.

98.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, erabat deusezak izango dira:

- a) Ordenamendu juridikoa urratzen duten egintzak.
- b) Agintea desbideratzen duten egintzak.
- c) Formazko akatsak dituzten egintzak.
- d) Gaiaren arabera eskumenik ez duten organoek emandako egintzak.

99.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio-bidea agortzen dute:

- a) Edozein enplegatu publikok emandako egintzen ebazpenek.
- b) Gora jotzeko errekurtsioak ebazten dituzten ebazpenek.
- c) Izapide-egintzek.
- d) Hierarkian goragokoa duten administrazio-organoen ebazpenek.

100. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz, honako administrazio-egintza hauek:

- a) Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpideekin edo organo aholku-emailek emandako irizpenarekin bat datozenak.



- b) Administrazio-xedapen edo -egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak, administrazio-errekurtsoak eta arbitraje-prozedurak ebazten dituztenak eta onartzen ez direla deklaritzen dutenak.
- c) Interesdunek proposatutako frogak onesten dituztenak.
- d) Arauzko ahalak baliatuz emandakoak.

21. GAIA.- ADMINISTRAZIO-PROZEDURA

101.- EZ daude salbuetsita 39/2015 Legea aplikatzenetik:

- a) Tributu- eta aduana-gaietako tributuen aplikazioari buruzko administrazio-prozedurak.
- b) Tributu- eta aduana-gaietako, lan-arloko, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eta atzerriartasun-arloko zehapen-prozedurak.
- c) Atzerriartasun- eta asilo-gaietako prozedurak.
- d) Zehapen-prozedurak.

102. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, honako hauek EZ dira administrazio-prozeduran interesdunak:

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ekonomia- eta gizarte-interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak Legeak aitortutako moduan.
- d) Legezketasuna defendatzen duen edozein herritar.

103.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, erabat deusezak izango dira:

- a) Ordenamendu juridikoa hausten duten administrazioaren egintzak, agintea desbideratzea barne.
- b) Helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak betetzen ez dituzten edo interesdunen defentsa-gabezia eragiten duten egintzak.
- c) Funtsezko betekizunak bete gabe ahalmen edo eskubide batzuk eskuratzeko bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak.



d) Legeak ezarritako epez kanpo emandako egintzak.

104.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, honako hau da administrazio-prozedura batean abstenitzeko arrazoia:

a) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, hirugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo lehenengo gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo hirugarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin.

c) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, hirugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin.

d) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin.

105.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hau dute:

a) Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztekoa, non eta ez diren ziurtagiriak.

b) Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztekoa, non eta ez diren dokumentu ofizialak.

c) Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztekoa, non eta, salbuespenezko moduan, organo eskudunak ez duen kontrakoa ezartzen.

d) Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztekoa, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudi erregulatzailak ez duen kontrakoa ezartzen.

22. GAIA- ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN FASEAK

106.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, salaketa bat aurkezteak:

a) Edozein bihurtzen du, besterik gabe, interesdun prozeduran.

b) Ez du inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen prozeduran.

c) Edozein bihurtzen du, besterik gabe, interesdun zehapen-prozeduretan.

d) Edozein bihurtzen du, besterik gabe, interesdun diziplina-prozeduretan.



107.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifiko batzuk eskaerak aurkezteko:

- a) Interesdunek hirigintza-lizentziak eskatzeko prozeduretan baino ez dituzte erabili beharko eredu horiek.
- b) Interesdunek administrazioaren erantzukizuna eskatzeko prozeduretan baino ez dituzte erabili beharko eredu horiek.
- c) Interesdunak ez daude eredu horiek erabiltzera behartuta.
- d) Interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek.

108.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozeduraren instrukzio-fasean:

- a) Administrazio-prozedura ofizioz bultzatzen da izapide guztietan, hau da, Administrazioari dagokio behar bezala garatzen dela zaintzea eta gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordetzea.
- b) Administrazio-prozedura ofizioz edo alderdi batek eskaturik bultzatzen da izapide guztietan; nolana ere, Administrazioari dagokio behar bezala garatzen dela zaintzea eta gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordetzea.
- c) Administrazio-prozedura ofizioz bultzatzen da izapide guztietan, hau da, Administrazioari dagokio behar bezala garatzen dela zaintzea eta konkurrentzia- eta partaidetza-printzipioak gordetzea.
- d) Administrazio-prozedura ofizioz edo alderdi batek eskaturik bultzatzen da izapide guztietan; nolana ere, Administrazioari dagokio behar bezala garatzen dela zaintzea eta konkurrentzia- eta partaidetza-printzipioak gordetzea.

109.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera:

- a) Informazio publikoaren izapidean parte hartzen duten pertsonak interesdunak dira parte hartzeagatik soilik.
- b) Informazio publikoaren izapidean parte hartzen duten pertsonak ez dira interesdunak parte hartzeagatik soilik.
- c) Informazio publikoaren izapidean alegazioak aurkezten ez dituzten interesdunek ezingo dute aurkeztu prozedura jakin horretan ematen den ebazpenaren aurkako errekurtsorik.
- d) Informazio publikoaren izapidean alegazioak aurkezten ez dituzten interesdunei kendu egingo zaie prozedura jakin horretako interesdun izaera.



110.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, prozedura hasi ondoren, ebazteko eskumena duen administrazio-organoak, ofizioz edo alderdi batek eskaturik eta modu arrazoituan, ebazpenaren efikazia ziurtatzeko egoki deritzen behin-behineko neurriak har ditzake, horretarako datu nahikoa baldin baditu honako printzipio hauen arabera:

- a) Efikazia, eraginkortasuna eta justizia.
- b) Proporzionaltasuna, efikazia eta berdintasuna.
- c) Objektibotasuna, eraginkortasuna eta justizia.
- d) Proporzionaltasuna, efektibitatea eta gutxieneko kaltea.

23. GAIA.- EGINTZAK BERRIKUSTEA

111.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, interesdunen aldeko egintza eman zuen Administrazioak egintza hura deuseztagarritzat jo nahi badu:

- a) Egintza errebokatu beharko du, nahiz eta preskripzio-epea bete den.
- b) Egintza errebokatu beharko du, preskripzio-epea bete ez den bitartean.
- c) Egintza berrikusi beharko du eta kontrakoa adierazten duen beste egintza bat onetsi.
- d) Egintza aurkaratu beharko du administrazioarekiko auzien auzitegietan, aldez aurretik prozedura espezifiko baten bidez interes publikorako kaltegarria dela deklaratu ondoren.

112.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazioak administrazio-xedapenak deuseztat deklaratu ahalko ditu:

- a) Ofizioz edo alderdi batek eskaturik, argitaratu eta bi hilabeteko epean, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada.
- b) Ofizioz, noiznahi, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada.
- c) Ofizioz edo alderdi batek eskaturik, noiznahi, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada.
- d) Ofizioz, argitaratu eta bi hilabeteko epean, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada.



113.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio-errekurtsoa jartzeak:

- a) Eten egingo du, berez, aurkaratutako egintzaren efikazia, xedapen batek kontrakoa xedatzen duen kasu zehatzetan izan ezik.
- b) Eten egiten du, kasu guztietan, aurkaratutako egintzaren efikazia.
- c) Ez du eteten, inongo kasutan, aurkaratutako egintzaren efikazia.
- d) Ez du etengo, berez, aurkaratutako egintzaren efikazia, xedapen batek salbuespenez berariaz adierazten dituen kasu zehatzetan izan ezik.

114.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Administrazio-errekurtsoak ebazten dituzten prozeduretan, frogak egiteko eskatu ahalko da, nahiz eta ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakioken.
- b) Administrazio-errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsio-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen.
- c) Administrazio-errekurtsoak ebaztean, kontuan hartuko dira errekurtsio-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegazioak, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen.
- d) Administrazio-errekurtsoak ebazten dituzten prozeduretan, jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunari, gutxienez hamabost egun eta gehienez hogeita hamar iraungo duen epe batean egoki deritzoten alegazioak egin ditzaten.

115. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsioa:

- a) Aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren aurrean jar daiteke soilik.
- b) Aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean jar daiteke.
- c) Hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean jar daiteke soilik.
- d) Dagokion administrazioaren zuzendaritza-organoaren aurrean jar daiteke.

24. GAIA.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ERANTZUNKIZUNA



116.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, Konstituzioaren aurkakoa dela deklaraturako lege-mailako arau batek eragindako kalteengatik ondare-erantzukizuneko kasuetan:

- a) Ordaina eman ahalko da lege-mailako araua Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratu duen epaia argitaratu baino lehenagoko bost urteko epean sortutako kalteengatik, non eta epaiak besterik xedatzen ez duen.
- b) Ordaina eman ahalko da lege-mailako araua Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratu duen epaia argitaratu baino lehenagoko lau urteko epean sortutako kalteengatik, non eta epaiak besterik xedatzen ez duen.
- c) Ordaina eman ahalko da lege-mailako araua Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratu duen epaia baino lehenagoko lau urteko epean sortutako kalteengatik, non eta epaiak besterik xedatzen ez duen.
- d) Ordaina eman ahalko da lege-mailako araua Konstituzioaren aurkakoa dela deklaratu duen epaia baino lehenagoko bost urteko epean sortutako kalteengatik, non eta epaiak besterik xedatzen ez duen.

117.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, Administrazioaren kontratuz kanpoko erantzukizunagatik kalte-ordainak honako hauetan ezarritako balioespen-irizpideen arabera kalkulatu dira:

- a) Aurrekontu-legerian, zerga-legerian eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoak; hala badagokio, merkatuan nagusi diren balioespenak ere haztatuko dira.
- b) Aurrekontu-legerian, kontabilitate-legerian eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoak; hala badagokio, merkatuan nagusi diren balioespenak ere haztatuko dira.
- c) Desjabetzeari buruzko legerian, kontabilitate-legerian eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoak; hala badagokio, merkatuan nagusi diren balioespenak ere haztatuko dira.
- d) Zerga-legerian, nahitaezko desjabetzeari buruzkoan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoak; hala badagokio, merkatuan nagusi diren balioespenak ere haztatuko dira.

118.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan nahitaezkoa izango da:

- a) Txosten ekonomiko eskatzea Administrazioaren esku hartze ekonomikoaz arduratzen den zerbitzuari, baldin eta bere funtzionamenduaren ondorioz ordaindu daitekeen balizko kaltea eragin badu, eta txostena emateko epea ezin da hogeigun baino gehiagokoa izan.



b) Txosten ekonomikoa eskatzea Administrazioaren esku hartze ekonomikoaz arduratzen den zerbitzuari, baldin eta bere funtzionamenduaren ondorioz ordaindu daitekeen balizko kaltea eragin badu, eta txostena emateko epea ezin da hamar egun baino gehiagokoa izan.

c) Txosten ekonomikoa eskatzea ogasun sailari eta txostena emateko epea ezin da hamar egun baino gehiagokoa izan.

d) Txosten ekonomikoa eskatzea ogasun sailari eta txostena emateko epea ezin da hogeit hamar egun baino gehiagokoa izan.

119.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio-erantzukizunari buruzko prozeduretan:

a) Prozedura hasi eta sei hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aldekoa dela jo daiteke.

b) Prozedura hasi eta hiru hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aldekoa dela jo daiteke.

c) Prozedura hasi eta hiru hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela jo daiteke.

d) Prozedura hasi eta sei hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo akordioa formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela jo daiteke.

120.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduraren kasuan:

a) Prozedura ezin da modu sinplifikatuan izapidetu.

b) Administrazioak prozeduraren izapidetze arrunta hasi badu, ezingo du erabaki prozedura modu sinplifikatuan izapidetzen jarraitzea.

c) Administrazioak ofizioz edo alderdi batek eskaturik erabaki ahal izango du prozedura modu sinplifikatuan izapidetzea.

d) Administrazioa prozedura modu sinplifikatuan izapidetzen hasi bada, ezingo du erabaki izapidetze arruntaren arabera jarraitzea.

25. GAIA.- 40/2015 LEGEA



121.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, organo berri bat sortu aurretik:

- a) Egiaztatuko da administrazio publiko bereko beste organo batek ez duela eginkizun berbera betetzen lurralde eta udalerrri berean.
- b) Egiaztatuko da edozein administrazio publikotako beste organo batek ez duela eginkizun berbera betetzen lurralde eta udalerrri berean.
- c) Egiaztatuko da edozein administrazio publikotako beste organo batek ez dituela ahal berberak gauzatzen udalerrri berean.
- d) Egiaztatuko da edozein administrazio publikotako beste organo batek ez dituela ahal berberak gauzatzen lurralde berean.

122.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, zerbitzu-jarraibide eta -aginduak dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira:

- a) Administrazio-agintaritzak hala erabakitzen badu edo, enplegatu publikoen administrazio-kargetan izango duen eragina dela eta, komenigarritzat jotzen bada.
- b) Xedapen espezifikoren batek hala ezartzen badu edo, hartzaileak edo gerta daitezkeen ondorioak direla eta, komenigarritzat jotzen bada.
- c) Administrazio-agintaritzak hala erabakitzen badu edo hartzaile bati baino gehiagori eragiten badio.
- d) Hartzaileentzat izan ditzakeen kostu ekonomikoak direla eta, komenigarritzat jotzen bada.

123.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, xedapen baten bitartez eskumen bat administrazio bati esleitzen bazaio zein organok gauzatu behar duen zehaztu gabe:

- a) Ulertuko da goragoko organo eskudunarena dela espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena, gaia eta lurraldea kontuan hartuta.
- b) Ulertuko da goragoko organo eskudunarena dela espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena, hierarkia kontuan hartuta.
- c) Ulertuko da beheagoko organo eskudunarena dela espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena, hierarkia kontuan hartuta.
- d) Ulertuko da beheagoko organo eskudunarena dela espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena, gaia eta lurraldea kontuan hartuta.

124.- Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute:



-
- a) Gehienez ere bost urtekoa, non eta alderdiek epe luzeagoa aurreikusten ez duten.
 - b) Gehienez ere bost urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den administrazio-xedapen bidez
 - c) Gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
 - d) Gehienez ere lau urtekoa, non eta alderdiek epe luzeagoa aurreikusten ez duten.

125.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, eskumen-delegatzeak, kudeaketa-gomendioek, sinadura-delegatzeak eta ordezkotzak:

- a) Ez dute eskumenaren titulartasuna aldatzen; aldiz, aldatzen dituzte eskumen horretaz baliatzeko kasuan-kasuan aurreikusten diren elementuak.
- b) Ez dute eskumenaren titulartasuna aldatzen, ez eta eskumen horretaz baliatzeko kasuan-kasuan aurreikusten diren elementuak ere.
- c) Eskumenaren titulartasuna aldatzen dute, bai eta eskumen horretaz baliatzeko kasuan-kasuan aurreikusten diren elementuak ere.
- d) Eskumenaren titulartasuna aldatzen dute; aldiz, ez dituzte aldatzen eskumen horretaz baliatzeko kasuan-kasuan aurreikusten diren elementuak.